



Hurrengoan bai
Puto Amoak Matematiketan
Autoekoizpena, 2015

Ez itxaron hurrengoari, tren honekin jolastu

EZ DAGO JENDE ASKO matematiketan putoamoa denik, gutxiago hala dela agurtzeko unean bertan aitortzen duenik; eta are gutxiago, gaur egungo garaietan, sistema binarioa errebindikatu eta uneoro jolasteko baliatzen duenik. Izan ere, bada oraindik zenbakiei, musikari, laguntasunari eta eguneroko bizitzari, kopuru totalari erreparatu gabe, zukua ateratzen ahalegindu eta lortzen duenik; esaterako, seigarren diskoa erditu berri duen Ermuako lagun taldea. Soseguz, gozatuz, alferrik estutu gabe eta, era berean, disfrutatuta onena emanez 15 urte darama indarrean taldeak. Laukoteak izan duen aldaketa bakarra da 5 lana kaleratu aurretik Iker Saenz de Zaitegik (Kokein) taldea utzi eta Jokin Azpiatzuk (Okerreko) ordezkatu izana. Oraingoan crowdfunding formula baliatu dute eta oraindik ere bada haiekin bat egiteko aukera. Taldekideak oso esker onekoak dira. Horren adibide, irailaren 26an taldea babestu dutenei haien herrian oparitu zieten kontzertu irudimentsua.

Komiki estiloko azal soil eta txukunean bildutako lan honetan hamaika kantu batu dituzte, oraingoan ere estilo, sonoritate, tonu, abeslari eta hitz egile batetik bestera etengabe saltoka, baina beti guztia etxean bertan eginez. Horren barne, jakina, grabazio lan aparta, hamarkadako eskarmentua duen Carlos Balseiro *Kubanakhan* taldekidearen ardura-pean.

Aurreko diskoan ez bezala –sartu berria zelako– Azpiazu partaide gazteenak kantuen konposizioan



ere parte hartu du eta berak idatzitako hitzek ematen diote, esaterako, hasiera diskoari. Asko gustatu zait *Bi beren* eta aulkira iltzatuta utzi nau pop-aren agindutara jarritako new-wave eta emoaren arteko sonoritate hain landuak, Monochrome eta El Desván del Macho taldeek parrandan landu ahal zitzaketenak. Orokorrean, gitarrek, teklatuak eta giroek asko dute dagoeneko new ez garenok berbagai dugun new wave-etik.

Diskoak aurrera egiten du eta taldearen saihestezineko patroieta bat da pop-rockarenganako zaletasun sutua: bizi-bizia (*Laranja azala*), rockarekin ondua (*Funtsa*), gardentasunaren eta bi ahotsen maitaleak ere

badirela aitortzekoa (*Y casi*), olatuak daudenean noise-pop-aren iratxo jostariekin batera itsasoratze-ko modukoa (*Wine with the surfer*). Ama Sayrekin senidetu eta mozketak gogorak dituen (*Laranja azala*) eta kanperak jantzita errepideko hard-hautsa ere maitatzen dakiena (*Kea errepedean*), besteak beste. Horrez gain, punk-rocka egiteaz aspaldi aspertu baziren ere, izan zuenak beti izango duela esamoldea borobilduz, *Movido por impulsos* gaztelaniazko kantu bakarra garratza eta erraiekakoa da oso; *Exjakin aberrian* gustuko dituzten koloreen paleta maisutasunez zeharkatzen dute; eta *Alone ex da lonely* iluntasuna, rocka eta tempo pausatua batzen dituen no-hit! txundigarria da, besteak beste. ■

Iker Barandiaran